

Donostian, 1996ko urtarrilaren 26an
(Goizekoa)

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
Knörr, E., idazkaria
Altuna, P.
Azkarate, M.
Charritton, P.
Davant, J.L.
Diharce, X.
Goenaga, P.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Krutwig, F.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Ondarra, P.
Peillen, Tx.
Salaburu, P.
San Martin, J.
Sarasola, I.
Satrustegi, J.M.
Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jau-
regian, goizeko hamarretan, bildu da Eus-
kaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren ki-
deak etorri dira.

Agiria

Abenduko agiria onartu da, M. Azkarate,
A. Irigoyen eta Tx. Peillenen oharrak jaso
ondoren.

Goresmenak

J. Haritschelhar euskaltzainburuak gores-
menak eman dizkio I. Sarasolari, berriki
jaso duen Donostiako Urrezko Dominaga-
tik.

Arauk

Batzordearen izenean Miren Azkaratek
egin du azalpena. Alfonso Irigoyenek *ara-
be* hitza aldeztu du, idatziz igorriko oha-
rrean eskatu bezala. X. Kintanak erantzun
dio *arabe* erdarakada dela. E. Knörren iri-
-

tiz, *arabe*, *ruso*, *italiano* eta antzekoek ezin dute Hiztegi Batuan lekurik izan. Boz-
ketaren ondorioz, batzordearen proposamena onartu da, hots, *arabiera*. Forma honetaz
gain *arabe* ere onartzearen alde lau euskaltzainek bozkatu dute. *Flandiera* dela eta, on-
tzat hartu da E. Knörren oharra; estatuetako hizkuntza ofizialen zerrendatik kenduko da.
Gaztelania / espainera izenen auziaz J.A. Aranek bere oharra bidali zuen, *espainiera*
erabiltzea proposatuz. A. Irigoyen, J.L. Lizundia eta J. San Martinek parte hartu dute
eztabaidan. Azkenean, bi hitzei maila bera ematea erabaki da aho batez. *Hebreera* onar-
tu da gehiengoaz, E. Knörr-en oharraren arabera, eta ez *hebraiera*. A. Irigoyenek pro-
posatu zuen *hebraiko* era ez da onetsi, maila honetan, bederen. Aldiz, *urdu* onartu da,
Irigoyen jaunak eskatu bezala. Xabier Kintanak iradokirik, *gaeliko* formaren ondoan
gaelera ere ezarriko da.

Zinpekoak

Abenduko batzarrean tratatu gabeko gaia egungoan aztertu dute euskaltzainek, hots, X. Kintanaren eskaria zinpekoen epaimahaiaren eta inguruko deiturez. Instituzio hori Espainiako legerian sartu berri denez, Kintana jaunak uste du parada ona dela izen ego-kiak zabaltzeko. Eusko Jaurlearitzak dagoeneko argitaratu dituen iragarkietan izen ego-kiak ageri badira ere, Akademiak bere iritzia eman behar du eta beste izenen bat erantsi.

Zenbait euskaltzain mintzatu dira gai honi buruz. P. Salaburuk *epaimahaikide* aipatu du, erants litezkeen izenen artean. P. Altuna, B. Oihartzabal, I. Sarasola eta F. Krutwigek, berriz, zalantzak agertu dituzte, Euskaltzaindiak usadioaren aurretik joan behar duenentz. Patxi Goenagak nahiago luke proposamenaren azken paragrafoko beste izena (*Desjabetzapenerako Probintzi Epaitegia*) kentzea; bestalde, hobe da *begi onez* edo antzeko esapidea erabiltzea. Gaiari ez dagokion izen hau bazterturik eta *epaimahaikide* hitza erantsirik onartu da proposamena, aldeko 14 botoerengatik.

Euskara Batuko batzordea

Bada-belztura sorta aurkeztu da batzarrean. Ohi bezala, oharrak datorren hilaren 20rako igorri behar dira.

J. Antonio Aranak, batetik, eta X. Kintanak eta E. Knörrek, bestetik, *-ari / -ario* bitasunaz Euskara Batuko batzordeari egindako gutunak irakurri dira gero. Arana jaunaren iritziz, Euskaltzaindiak 1984ko martxoaren 30ean harturiko erabakiaren kontra dago abenduan hartu zena; *bibliotekari* hitza bera ere erabaki hartan aipatzen dela gogorarazi du. Gainera, *bibliotekario* hitza desegokia da, haren aburuz, emakume baten-tzat. Kintana eta Knörr jaunek abenduko testuan aipatzen ez den 1984ko erabakia oroi-tarazi dute, halaber, eta arauak *ex novo* ematearen aurka agertu dira. M. Azkaratek erantzun du ez dela kontraesanik 1984an eta berriki hartu den erabakiaren artean. Bes-talde, *-ario* atzizkian mozio-generorik ez dela adierazi du Azkarate andereak. P. Sala-buruk esan du behin erabakiz gero ezin daitekeela atzera egin.

Ibon Sarasolak, bidenabar, euskara batuaren gainean kazetetan argitaratzen diren zenbait artikulua direla eta, Euskaltzaindiak bere burua defendatu behar duela esan du. J. San Martinek Akademiaren erabakiekiko euskaltzain guztien begirunea eta diziplina eskatu du, *erkidego* hitza adibidetzat jarririk. Ildo beretik, J. M. Satrustegik aditzera eman du desadostasunak ez direla inola ere kanpora atera behar.

Urgazle berriak

Juan M. Lekuonak urgazle berrien izendapenez Euskaltzaindiaren Zuzendaritzarako egin txostena, beronek ontzat hartua, irakurri du. Lekuona jaunaren iritziz, urgazle berriak proposatzeko tenorean lagun hauek beharko lukete lehetasuna izan: batzordeetan lanean ari direnek; idazleek; itzultzaileek; euskal hizkuntzalariek; euskara ez den beste alorretako profesionalek, eta atzerriko euskalariek. Ontzat hartu dute batzartuek txos-tena. P. Salabururen ustez, komeni da jakitea urgazleak zenbat diren eta sailkatu. P. Altunak gogorarazi du kopurua gutxitzea izan zela duela lau urteko asmo eta irizpidea. Proposamenak otsailaren 20a baino lehen bidaliko dira, arautegiak dioen eran aurkez-tuak.

Eskuartekoak

Abenduko batzarrean beste izkribu bat gelditu zen aztertu gabe, X. Kintanarena, Euskaltzaindiaren jendaurreko adierazpena eskatuaz, hiru puntu hauekin: 1994ko maiatzaren 8az gero bahiturik dagoen Jose Maria Aldaia enpresa-gizonaren askatasuna; euskaldun presoak Euskal Herriko edota hurbileko presondegietara ekartzea, eta gure hizkuntzaren kaltegarri den indarkeriaren aurka.

J. San Martinek, J. Haritschelharrek, J.L. Davantek eta P. Altunak Euskaltzaindia esparru horietatik kanpo egon behar duela esan dute, nahiz euskaltzain bakoitza izkribuan esaten denarekin bat etorri.

E. Knörrek ere bere adierazpen zirriborroa irakurri du gero: Euskaltzaindiaren jagote-eginkizuna oroitarazi ondoren, euskararen kontrako erasoak eta lege aldetikako injustiziak eta hutsuneak salatzen dituen bezala Akademiak argi beharko luke hitz egin euskara aitzakiazat harturik askok darabilten bortxaren kontra. Bestalde, hizkuntza eskubideak ororenak baitira, euskaldun presoak beren familietatik urrun ez egotea eskatzen du.

Lehengo iritziak berriro dira testu honetaz. P. Salaburuk esan du agian Euskaltzaindiak Aldaia jaunaren familiari bere atxikimendua ager liezaiokeela. J. Luis Lizundiaren aburuz, adierazpenik egingo balitz hauteskunde garaitik landa hobe. Beñat Oihartzabalek esan du gai horiek ez direla Euskaltzaindiarenak, eta Pierre Charrittonen ustez euskaltzainek badituzte beren iritzia azaltzeko bideak. Endrike Knörrek bere izkribua erretiratu du, eta orobat Xabier Kintanak.

Arautegiak agindu gisa, 1995ko hiloroko batzarretan izandako en euskaltzainen zerrenda aurkeztu da. Urte berean egoitzan izan diren pertsonen kopurua ere ageri da batzarrean banaturiko beste paper batean. Guztira 5.212 izan dira, haietatik 1.508 administrazioan eta 1.526 liburutegian.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarra.